

EMAKUMEEN AGERIKOTASUN ETA BALIO BERA

IRAKASLEENDAKO JARRAIBIDEAK

ALBISTEAK, MUNDUAREN ISLA?

Esan ohi da komunikabideak gure gizartearen isla direla, **giza jardueraren isla, garrantzitsutzat jotzen dugunarena eta kezkatzen gaituenaren isla**, alegia. Hala ere, eta emakumeen eta gizonen berdintasunaren ikuspuntutik, esaten ahal dugu komunikabideek, orokorrean, kontatu, islatu eta nabarmentzen dituztela, batez ere, gizonen jarduerak, kezkak, gustuak, interesak, balorazioak, etab.

Erreparatzen badiegu egunero erabiltzen dugun prentsari, aldizkariari, telebistari, interneti, etab., eta zenbatzen **baditugu emakumeak eta gizonak**, ikusiko dugu ez dela emakume eta gizon kopuru bera agertzen, ez direla **sail** berdinetan agertzen (izokin koloreko prentsa eta prentsa arrosa, politika eta gizartea, kultura eta ikuskizunak...), ez direla **albiste eta izenburu mota** berdinetako protagonista (laneko lorpenak eta egoera sentimentalak, mota orotako errekorrak eta edertasuna...) etab.

Orokorrean, **komunikabideek jasotzen dute batez ere gizonezkoen jarduera, mundua eta gauzak, eta ez emakumezkoen jarduera, mundua eta gauzak**. Populazioaren erdiari erreparatzen diote soilik ("garrantzitsua" den erdia, hain zuzen) eta ahaztu egiten dute beste erdia, bere lanarekin, jarduerarekin eta eguneroko ekarpenarekin. Horrela, **orokorrean, hedabideek ikusiez inbihurtzen dute populazioaren erdia**. Ondorio logiko gisa, gure alabek, neskek eta emakumeek orokorrean, ez dute bere burua islatu ikusten jarduera zenbaitetan, ezta bizitzaren esparru zenbaitetan ere.

KOMUNIKABIDEEN MUNDU MAILAKO AZTERKETA

GMMPa (Komunikabideen mundu mailako azterketa proiektua), nazioarteko ahalegin kolektibo garrantzitsua da eta datu konparatiboak jaso ditu 1995ean, 2000an eta 2005ean:

2005ean 76 herrialdeetako taldeek jaso zituzten datuak. Datu horiek aztertu eta alderatu egin ziren, orotara **telebista, irrati eta egunkarietako 12.893 albiste**. Laburbilduz, **25.671 pertsona-albiste** jaso ziren, hau da, elkarriketatuak izan diren edo albisteen gaia izan diren pertsonak, eta albiste horiek aurkeztu zituzten 14.273 kazetari. 2010ean komunikabideen mundu mailako azterketa berria eginen da.

MARGARET GALLAGHER-en datuak

http://news.live.visionwt.com/who_makes_the_news/report_2005

Kopuru batzuk: **emakumeak albiste guztien %21ean** agertzen dira.



**Nafarroako
Gobernua**

Hezkuntza

2009-2011 Berdintasunerako Plana

hezkidetzalantzen

ageri izatea, ikustarazi

Eskolak ikustarazi behar du ikusiezina, eta aztertu behar du eskolan erroturik dauden **sexismo, misoginia, matxismo eta androzentrismo** ezau-garriak eta horien kritika egin, horiek eraldatu eta kentze aldera.

Neskek ez dute bere burua ikusten, ezta entzuten ere, giza ezagutzaren subjektu protagonista gisa, emakumeen ereduak gutxi eta urriak dira, sexu edo ama roletara mugatuak. Hizkuntzak alde batera utzi, degradatu edo ikusiez in egiten ditu neskek. Ez da emakumerik ikusten ardura karguetan.

Mutilek gehiegizko ordezkapena dute giza jarduera orotan, gehiegizko denbora eta espazioak hartzen dituzte, beti aipatuak izaten dira eta beren erreferentzia ereduak giza jarduera oro hartzen dute.

esku hartzea

Sexismoa eta genero bortizkeria ekartzen duten emakumeen eta gizonen arteko berdintasunik gabeko harremanak desagertarazteko:

- **Sexismoa aurkitzea**, bai agerikoa, bai ezkutua.
- Kanon akademiko androzentrikoa eraldatzea, horren barruan **emakumeen giza lana** sartzen hasi dadin.
- **Alde batera uztea jokabide misogino eta matxistak**. Mutilek baloratzea bitartekotza eta lankidetzaz bezalako jarduerak.
- **Hizkuntza formula inklusiboak** asmatzea eta aplikatzea.
- **Genero ikuspuntua** duen irakasle lankidetzaz, bizitza, bizikidetzaz eta eskola errendimendua hobetze aldera.

curriculum

Ikasleekin, neska eta mutilekin, egiaz-tatzea **emakumeek arlo guztietan jardun, lan egin eta ekarpenak egi-ten dituztela**, gizonak bezainbeste, bai gaur egun, bai aurreko garai histo-rikoetan.

Giza historiako emakumeak bere izenarekin aurkitzea eta ezagu-tzea, emakumeak gizonak bezain age-rikoak eta ezagunak izan daitezten.

Aztertzea zergatik ezagutzen ditu-gun gehiago gizonak eta zergatik ez ditugun ezagutzen antzeko gauza garrantzitsuak egin dituz-ten emakumeak: asmakuntzak, aur-kiakuntzak, arte eta litaratur lanak...

baliabideak

Komunikabideen esparru eta saileta-ko protagonista diren edo izan behar-ko liratekeen **emakumeak bilatzea eta identifikatzea:** politika, ekono-mia, ikerketa, zientzia, kultura, kirola, aisialdia...

Baloratzea ea emakumeen ekarpenak komunikabideetan gizonena bezain-beste **islatzea merezi ote duten.**

Emakumeak komunikabideetan iku-siezin egiten dituzten **mitoak, aurrei-ritziak eta ideia faltsuak aztertzea:** marka kaxkarragoak, merezimendu gutxiago, arlo horietan emakumerik ez egotea...

ereduak

Azpimarratzea komunikabideek ondokoetan duten eragina: gure bizitzan, gure burua ikusteko moduan, zein eredu imitatzen ditugun eta zein proiektu egiten ditugun etor-kizunerako.

Emakumeoi eta gizonoi komuni-kabideek eskaintzen dizkiguten bizitza ereduak agerian utzi eta aztertzea (nortasuna, lana, harrema-nak, arrakasta...), eredu hori jarraitu edo ez erabaki ahal izateko inzipide-kin.

Azpimarratzea **berdintasuna soilik posible izanen dela** komunikabide-ek emakumeen eta gizonen jarduerak, interesak, kezak eta balioak modu partitario eta justuan adierazten badi-tuzte.

Emakumeen presentzia sailka eta horien edukia:

- ▶ Politika eta gobernu, oposizio eta abarren saila: %14
- ▶ Ekonomia eta negozioen saila: %20
- ▶ Pertsona ospetsu eta ezagunak, etab.: %42
- ▶ Erregetza: %33
- ▶ Etxearen eta familiaren zainketa: %75
- ▶ Ikasleak, langabeak: %51
- ▶ Zuzenbidea eta auzitegiak: %18
- ▶ Merkataritza jarduera: %12
- ▶ Pertsona aditua, zerbaitean jantzia: %17
- ▶ Zerbaitean lekuko izan den pertsona: %30
- ▶ Kaleko herritarren iritzia: %34
- ▶ Biktimak: %19 (gizonak, %8)
- ▶ Beren familia egoera dela eta aipatutako pertsonak: %17 (gizonak, %5)
- ▶ Argazkilaritzan: %23 (gizonak, %16%)
- ▶ Albistearen protagonista nagusia: %10

GAIK: 45 gai nagusien artean, soilik bietan da emakumeen prota-gonismoa gizonena baino handiagoa:

- ▶ Edertasun eta moda lehiaketak (emakumeak %72) eta
- ▶ Emakumeen aktibismoari buruzko artikulua (%55).
- ▶ Emakumeengan eragin sakona duten gaietan, genero bortizkerian adibidez, gizonen ahotsa da nagusi (%64).

LANBIDEA: komunikabideek gizonak identifikatzen dituzte beren izena, abizena eta lanbideagatik.

- ▶ Emakumeen kasuan ez da lanbiderik aipatzen eta bere familia ego-era gizonetzkoen kasuan baino hiru aldiz gehiago aipatzen da (ema-kumeen %17a eta gizonen %5a).

KIROLAK:

Emakume kirolariak kirol albisteen %16a hartzen dute soilik, eta pres-tigio gutxiago dute.

ADINA: emakumeendako erabakigarria izan ohi da.

- ▶ Albiste diren gizonen ia erdiek (%49) 50 urte edo gehiago dituzte.
- ▶ Albiste diren emakumeen ia hiru laurdenak (%72) 50 urte baino gutxiago ditu.

EMAKUME KAZETARIAK ETA AURKEZLEAK: %37a dira.

- ▶ Baina 50 urterekin kazetari guztien %17a dira eta aurkezleen %7a.
- ▶ Orokorrean, gizonak jorratzen dituzte gai "gogor" eta "serioak".

Agerikoa denez, neskek eta mutilek ikasten dute emakumeak eta gizo-nak non dauden eta non ez dauden. Hau da: zein den bere tokia, bere saila eta bere albistea eta zein ez. Ikasitako gauza horiek eragin han-dia dute gure ikasleek egunero garatzen duten beren bizitzaren ibilbi-dean.

BALIOAK ETA EREDU MEDIATIKOAK

Komunikabideek, orokorrean, islatzen eta transmititzen dituzte indarrean dauden gaiak, balioak eta gizarte ereduak, eta batzuetan horiekiko alternatibak proposatzen edo jasotzen dituzte.

- ▶ **Prentsak, irratiak, zinemak, telebistak, literaturak, arteak, musikak, entretenimenduek, jolasek,** etab. gure gizartea islatzen dute, eta aldi berean gizarte hori birsortzen eta transmititzen dute.
- ▶ Eginkizun hori egiten ahal dute garai bakoitzean emakume eta gizonendako ezarri diren genero rolekiko aldaketa eta alternatiba gehiago edo gutxiagorekin.

BIZITZEN IKASTEA

Gure ikasleek, neskek eta mutilak, horietan ikusi, imitatu eta ikasten dituzte beren interesak, gustuak, lehentasunak, helburuak, estiloak, harremanak, kontakizunak, balioak, etab. **Neskek eta mutilek komunikabideetan ikusi, imitatu eta ikasten dituzte bizitzaren, harremanen, presentziaren eta gizarte arrakastaren oinarritzko ereduak.** Hau da, komunikabideek islatu eta bizitzen irakasten dute. Bertan ondokoa ikasten dute:

- ▶ Izateko eta jarduteko modua. Bai neskek eta bai mutilek ikasten dute bere burua ezagutzen eta bere nortasuna interpretatzen. "Izateko modua".
- ▶ Beste pertsona batzuekin harreman pertsonalak, emozionalak, lanekoak eta sozialak izaten. "Zoriontsu" izateko modua.
- ▶ Bizitzan "norbait" izateko modua, gizartean baloratua izatea, arrakastarekin, aitopenearekin... "Bizitzan gauzak ongi ateratzeko" modua.

NESKENDAKO ETA MUTILENDAKO EREDU DESBERDINAK

Gizarte arrakastaren eredu horiek desberdinak izan ohi dira neskendako eta mutilendako.

Gure ikasleek ikasten dute zein sail, albiste eta titularretan, zein film eta paperetan, zein pertsonai eta tokietan, zein historia eta mundutan dauden **gizonak**:

- ▶ Ikasten dute "garrantzitsuak" diren sail, albiste eta titular horiek (politika, ekonomia, kultura, kirola...), paper protagonista horiek (heroikoak, bortitzak, salbatzaileak, bakartiak, lehiakorrak...) mutilei egokituko zaizkiela etorkizunean, gizon jaio izateagatik.
- ▶ Ikasten dute, mutilak izateagatik, gizartearendako garrantzitsuak direla. Are gehiago, ikasten dute zein toki "zor zaien" soilik mutilak izateagatik.

Gure ikasleek, neskek eta mutilak, emakumeekiko oso bestelako irakaspena ikasten dute:

- ▶ Ikasten dute "garrantzi gutxiago" duten sail eta film horiek (esamesak, bitxikeriak, azkeneko orrialdea, biluziak...), bikotekide edo biktima (sarritan gizon baten biktima) bigarren mailako paper horiek etorkizunean nesken esku egonen direla, soilik emakume jaio izateagatik.
- ▶ Ikasten dute, neskek izateagatik, ez direla hain garrantzitsu gizartearendako. Are gehiago, ikasten dute zein toki "ez dagokien" neskek izateagatik.

erreferentziak

Testu liburuek, beren **testu eta irudiak**, ipuinak, filmak, serieak, komikiak, jolasak... eta komunikabideek, beren **izenburu, albiste eta argazkiak**, jarraitzen dute iraganeko este-reotipoak zabaltzen, emakumeen eta gizonen egungo errealitateari erreparatu gabe.

Orokorrean, **praktikan, emakumeekiko eredu diskriminatzaile eta baztergarriari jarraitzen diote**, ikusiez in bihurtu, ongi izendatzen ez dituen, kontuan hartzen ez dituen eta aztertzen ez dituen.

Eskola gehienak saiatzen dira neska eta mutilendako eskubide eta betebeharrak bereko **diskurtso demokratikoa osatzen**, teorian unibertaria dena. Diskurtso horretan, baina, **praktikan eta inkontzienteki, "maskulinoa" da nagusi**: jokabide-etatik, lorpen, eginbehar eta balioetara, horiek guztiak neskenak izaten ahal dira, "dagoeneko mutilak bezalakoak izaten ahal dira eta".

neskak eta mutilak

Hezkuntza eredu honekin (eskolakoa eta mediatikoa) **neskak** bigarren maila batean jarraitzea bideraturik daude, eta beraz, ondoko joerak gartzatzen dituzte: autoestima baxua eta bere buruarekin segurtasun gutxi izatea, edo alderantziz, mutilen aldera jokatzea, mutilen ereduak modu zabarrean kopiatuta.

Mutilek aukera handiak dituzte nagusikerian eta maskulinitasun-bortizkeria binomioan jarraitzeko, gizarte zigorrik ez duen gizonen rol klasikoetik aldentzeko zailtasun handiekin.

Ahalduntze sinboliko desorekatua, argi eta garbi. Eta bestelako ezauzgarri, gaitasun eta akatsak dakartzaten sexu diferentzien gaineko okerreko sinesmenak.

Neskek eta mutilek **hezkuntza aukera berdina dituzte teorian**, irakaskai berak, ikasgela berak, baina, **praktikan** pribilegio printzipioetan (mutilendako) eta bereizkerian (neskendako) **oinarritutako mezuak eta munduaren ikuskerak jasotzen dituzte.**

hiztunak

Sexismoa ez dago lengoaiari, gure buruan dago. "Gizarte", "gizaki", "enpresari", "negoziogile", "itsas-langile", "legelari", "plazazale", "jendezale" eta gisa horretako hitzak eta esamoldeak ("gizon", "empresagizon", "itsasgizon", "legegizon", "plazagizon" hitzen ordez) pertsona batzuetako arrotzak izatea ez du esan nahi gramatikalki okerrak direnik, baizik eta orain dela gutxi arte emakumeak kargu eta lanbide horietatik baztertuta egon direla. Ohiko moduan erabiltzen baditugu, hurbilak, gureak egiten ditugu.

inbertsioaren araua

Inbertsioaren araua oso baliagarria da enuntziatu bat baztertzaila den edo ez susmatu eta erabakitzeke. Gehienetan erabiltzen ahal da eta baliabide egokia da ahalbidetzen digulako hausnartzea eta hizkuntzaren erabilera sexistak zuzentzea, esamolde sexu birendako bidezkoa den edo bietako batendako baztertzaila den aztertuz.

Araua ondokoan datza: **egoera aldatzea, emakumezkoak gizonetzkoen tokian jarritz, eta alderantziz**, ikusteko lehen "normala" zen esaldia ea aldatzarekin ez zaigun hain "normala" iruditzen. Eskolako adibide batzuk:

- Gizonak gurpila aurkitu zuen eta...
- Gizon guztiek legearen aurrean eskubide eta betebeharrak berdinak dituzte.
- Gizon bat boz bat printzipio demokratikoa...
- Bakea lurrian borondate oneko gizonendako.
- Espainiako gizonek Mundu Berria menderatu zuten... izan ezik.
- Baliteke gizon guztiek arbaso bera izatea.
- Oporrak hasi dira milaka mutilendako eta beren familiendako.
- Ezzaiozu zure amari botoia josteko.
- Guraso elkarteko afarira gurasoak euren emazteekin etor daitezke.
- Gizon bat behar da atezain lana egiteko eskolan.
- Andereño bat bilatu behar da bi urteko gelarako.
- Guztiok gara berdinak, guztiok anaiak gara.

HIZKUNTZA: ERREALITATEA ISLATU ETA SORTU

Hizkuntza **komunikatzeko sistema** bat da, eta honen bidez adierazten ditugu ideiak, pentsamenduak, sentimenduak eta informazioa.

- ▶ Hizkuntzaren bidez izendatzen eta irudikatzen dugu bizi dugun errealitate soziokulturala.
- ▶ Gizartea aldatzen doan heinean hizkuntza ere aldatzen da.
- ▶ Gisa berean, hizkuntzan aldaketak sartzerakoan errealitatearen gainean dugun ikuskeran eragiten ahal da, eta ondorioz errealitate hori aldatu.

Hizkuntza bat ikastea sinbolizatzen ikastea da, eta horrek ez digu soilik komunikatzeko aukera eskaintzen; eskaintzen digu baita ere **ezagutza, jokaera, balio, aurreiritzi, eta abar** sorta bat eskuratzeko aukera.

- ▶ Pertsona gisa eraikitzen gaituzte, eta laguntzen digute egiten duguna **antolatzen eta interpretatzen**, gure nortasun indibidual eta kolektiboa osatuz.

Hizkuntzak ez du soilik errealitatea islatzen, **eraiki ere egiten du**. Hori dela eta, gure gizartean ematen diren berdintasunik gabeko sexuen arteko harremanak ikusten ahal dira hizkuntzarekin egiten dugun erabilpenean.

- ▶ Era berean, hizkuntzarekin egiten dugun erabilerak laguntzen ahal du berdintasunik gabeko harreman horiek aldatzen.
- ▶ **Emakumeak izendatzea eta agerikoak bihurtzea** adierazi nahi du mezuak orain arte baino zehaztasun handiagorekin osatu behar direla, horrela hobeki islatuz errealitatea eta justuagoa den errealitate bat eraikiz.

HIZKUNTZAREN ERABILERA EZ SEXISTA

Mendebaldeko gizarteetan emakumeek pairatzen duten bereizkeria historikoa politika publikoen xede izan da bizitzaren esparru orotan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko asmoz. Testuinguru honetan hizkuntzaren erabilera ez sexista sustatzeko gomendioak eta arauak ere garatu dira:

- ▶ **Nazioarteko gomendioak (UNESCO, 1987 eta 1989)** gobernuak premiatzen dituzte estrategiak abiarazteko hizkuntzaren erabilera inklusiboak eta bazterkeriarik gabekoak sustatzeko.
- ▶ Espainiak gomendio horrekin bat egin zuen **Emakumeen aukera-berdintasunerako lehenengo planean (1987)** eta ondoren autonomia erkidego guztietan garatu ziren arauetan.
- ▶ Nafarroako Emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasunaren aldeko planak (2006-2010) eta Nafarroako Gobernuaren **Hezkuntza Departamentuko 2009-2011 berdintasunerako planak** hizkuntzaren erabilera ez sexistarako berariazko neurriak dakartzate.

Araoa ez da lengoaiari, ezta hizkuntza ere, horien erabilera baizik:

- ▶ Lengoiaren eta hizkuntzaren **erabilera sexista** egiten dugu gizarte sexista eta androzentriko batean bizi garelako.
- ▶ **Hizkuntza bakar bat ere ez** (euskara, gaztelania...) **ezta inolako lengoiaririk ere** (hezkuntzakoa, adibidez) ez dago sexismo arazoetatik salbuetsia, hizkuntza horietako **hiztunak** salbuetsiak ez daudelako hain zuzen.